

Euskadiko WPDay Mondragon Unibertsitatea

2016/05/10

Joan zen maiatzaren 7an Garaia Berrikuntza Gunean Euskadiko III. WPDay egin zen. 60 pertsona baino gehiago etorri ziren erdigunean Euskadin erreferente den WordPress plataforma duen ekitaldira.

Ekitaldia Garaia Enpresa Digitalak eta SPRIK antolatzen dute eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Telematika arloko Iñaki Arenazak eta Dani Reguerak tailer bana gidatu zuten. Lehenengoak, WordPressen oinarritutako web guneen optimizazioari buruzkoa eta bigarrenak, web guneetako segurtasuna hobetzeko moduei buruzkoa.

Bi tailer hauez gain, WordPresseko API RESTek dituen beste funtzionalitate batzuk ezagutzeko aukera izan zuten, nola sortu Blog komunitate bat WordPressen edo nola itzuli euskarara WordPresseko corea.

WordPress web guneak sortzeko CMS erabilienetako bat da, erabiltzeko duen erraztasun eta moldakortasunagatik, baita ere proiektua garatzen eta hobetzen duen komunitateagatik.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Telematika arloak urteak daramatza WordPress proiektuari laguntzen.

